



Universidad
de País Vasco



Enkain
Unibertsitatea

**COVID-19 BERROGEIALDIAK
INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO
TEKNOLOGIEN ERABILERAN ETA IKUS-
ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOAN
IZANDAKO ERAGINA**

10. Txostena

2020ko Apirila

COVID-19 BERROGEIALDIAK INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN ERABILERAN ETA IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOAN IZANDAKO ERAGINA


Azken asteotan bizi dugun salbuespenezko egoera dela eta, unibertsitateko ikasleen ohiko ikaskuntza astindu eta etxean geratzeko beharra izan dute Covid-19 koronabirusak eragindako testuinguruan. Gaitzaren hedapena eteteko asmoz, inoiz baino ordu gehiago etxean igarotzen dituzten honetan, Informazio eta Komunikazio Teknologien-IKTen eta ikus-entzunezko edukien kontsumoak nolakoak dituzten azaltzen da begien aurrean daukazun txostenean.

1. Ohar metodologikoak

Txosten honetan argitaratzen diren datuak Ikusiker Paneleko kideei egin zaien inkesta batetik jasotzen dira. Ikusiker Panela NOR ikerketa-taldeko kideek sustatutako Applika ikerketa-proiektuaren barruan kokatzen da (US17/40). Applika Ikerketa-proiektuan NOR eta EITB ari dira lanean UPV/EHUko ikasleen ikus-entzunezko kontsumoak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilera aztertuz. UPV/EHUko hiru kanpusetako hogeit hamar gradu ezberdinetako ikasleei zuzendu zitzairen galde-sorta 2020ko martxoan 25a eta 31 bitartean, beraz berrogeialdian sartu eta handik hamar egunetik aurrerako datuak biltzen dira hemen. Guztira 700 panelkideen erantzunetan oinaritutako informazioa jasotzen da txosten honetan.

2. Koronabirusaren eragina informazio eta komunikazioen teknologien erabileran eta ikus-entzunezko edukien kontsumoan

1. Irudia – Itxialdian zaudenetik, gehiago erabiltzen dituzu telebista, webguneak, plataforma digitalak, nahieran zerbitzuak, sare sozialak, irratia, egunkariak, aplikazioak eta horrelakoak?




Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko Apirila

Itxialdia hasita gero, UPV/EHUko ikasleen ikus-entzunezko kontsumoaren hazkundearen inguruko datuak biltzen ditu lehen irudiak. Testuinguru honetan ikasleen erdiak baino gehiagok (% 54,2) haien kontsumoa handitu duela dio, eta % 37 apur bat gehiago aukeran kokatu du bere burua. Hau honela, ikasleen % 91,2k bere kontsumo ohiturak handitu duela esan dezakegu. Erabilera gutxitu eta erabilerarik ez daukaten ikasleak ez dute apenak pisurik eta kontsumo berdintsu bat daukaten ikasleek % 6 osatzen dute.

Agerikoa den bezala, berrogeialdiak UPV/EHUko ikasleen ikus-entzunezko kontsumoa areagotu du. Erabilera murriztu duten horiek oso gutxi diren bitartean, gehiengo nabarmen batek bere erabilera handitu duela adierazi du. Aurrez burututako txostenetan ikusi genuen bezala, etxebizitza da telebista eta baita internet eta sare sozialak ere kontsumitzeko espaziorik arruntena. Berrogeialdiak beraz, IKT eta ikus-entzunezko kontsumoen eremu ohikoenaren garrantzia azpimarratu du

2. Irudia – Itxialdian zaudenetik, zenbat denbora eskainten diezu egunero honakoei?



Iturria: ikusiker Panela, 2020ko Apirila

Bigarren irudian, berrogeialdia hasi zenetik, gazteek plataforma eta euskarri ezberdinetan egunerokoan kontsumitutako denbora tartea biltzen ditu goiko irudiak. Agerikoa den bezala, aukera ezberdinek erantzunen sakabanaketa ezberdinak adierazten dituzte, eta sakabanaketa handienetakoa duen aukeretako bat sare sozialena dugu. Ikasleen gehiengoak, ia bere osotasunean, itxialdia hasi geroztik erabiltzen dituela ikus dezakegu, honen erabilerarik egiten ez duten ikasleak soilik %0,4a baitira. Datuen sakabanaketa dugula diogu ikasleen emaitzak aukera ezberdinen artean banatzen direlako, baina ikasle gehien biltzen dituen denbora tartea 2-3 ordu artekoa da (% 26,6). 3-4 ordu artean kokatzen diren ikasleak % 21,7a osatzen dute, eta aipatzekoa da ikasleen % 31,2ak itxialdi garaian 4 orduetik gorako kontsumoa

eskaintzen diela sare sozialei.

Appei dagokienez, ikasleen erdia baina gehiago (% 51,4) epe laburreko kontsumoetan kokatzen da eta % 12,5ak ez luke hauen erabilerarik egingo. Ikasleen 26,9ak 2 eta 4 ordu arteko denbora eskainiko lieke aplikazioei eta gutxiengo batek egiten du 4 orduetik gorako kontsumoa.

Ordainpeko plataforma digitalak kontuan hartuz, ikustaldi luzeagoak nagusitzen dira (% 65), ordu bat eta lau ordu arteko aukeran kokatzen baita. Netflix, HBO edota Filminen gisako plataformarik erabiltzen ez duten ikasleak % 14,2a dira.

Webguneen kontsumoan aldiz, ikasleen gehiengo denbora tarte laburrean kokatzen da, ordubete baino gutxiagoko tarte da ikasle gehien biltzen dituen aukera (% 26). Gainera, ikasleen ia erdia (% 49,5) ordubete baino gutxiago eta 1 eta 2 ordu artean kokatzen da. Ikasleen % 17,3 batek 2 eta 3 ordu arteko kontsumoa egiten du webguneetan eta kopuru beretsua biltzen du erabilerarik egiten ez dutenen aukerak (% 19,9).


Telebista tradizionalen ere denbora laburreko kontsumoak nabarmentzen dira, % 39,2ak honi ordubete baino gutxiagoko tarte eskainiaz. % 24,5ak 1 eta 2 ordu arteko denbora eskaintzen dio honi eta % 22,9ak aitortu du berrogeialdia hasi geroztik bere egunerokoan ez duela telebistaren kontsumorik egiten.

Jarraian datozen aukeretan euskarriaren erabilerarik egiten ez duen ehunekoak gainontzekoak baino pisutsuagoa dela aipatzekoa da. Hau honela, egunkari digitalen kasuan ikasleen % 49,6ak ez du hauen erabilerarik egiten bere egunerokoan, eta denbora tarte bat eskaintzen dioten horien artean, epe laburreko kontsultak nagusitzen dira, % 38,6a ordubete edo gutxiagoko tarteetan kokatuaz. Bide-jokoen kasuan, ikasleen erdiak baino gehiagok (% 53,6) honen erabilerarik egiten ez badu ere, gazte hauek eskaintzen dioten denboraren erabilera anitzagoa dela esan daiteke. Baina, batez ere ordubete eta hiru ordu artean kokatzen dira ikasle erabiltzaileak (% 19,4). Erakundeetako webguneetara jotzen duten ikasleen artean, gehiengoak epe laburreko kontsultak egiten ditu, % 30,4a gehienez bi ordu bitarteko tarteetan kokatzen baita, eta % 58,9ak ez luke hauen erabilerarik egingo.

Itxialdiaren ondotik etorritako egunotan UPV/EHUko gazteek nahieran zerbitzu, irrati eta ordainpekoak diren telebistako kanal eta zerbitzuen erabilpen urri bat egin dutela esan beharra dugu, gehiengo zabal bat erabilerarik eza adierazi baitu.

3. Koronabirusaren inguruko informazioa

3. Irudia – Koronabirusarekin zerikusia daukaten berriak, bideoak, artikuluak, txistekak, yotuberren emanaldiak, telebistako programak, sare sozialetako mezuak, irudiak...ikusten zenbat denbora ematen duzu egunean?




Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko Apirila

Aurreko irudian ikus daitekeen bezala, ikasleen gehiengoak sare sozialen erabilera egiten du koronabirusari buruzko edukiak bilatzerakoan, gazteen gutxiengo bat kokatzen baita batere denborarik eskaintzen ez dion aukeran (% 8,4). Alabaina, ikasleen gehiengoak gaiaren inguruko edukietarako sare sozialen erabilera egiten badu ere, jarduera laburreko ikustaldiak nagusitzen dira, % 47,7k ordu bate baino gutxiago eskaintzen baitio honi, eta % 22 ordu bat eta biren artean kokatzen du bere burua.

Sare sozialetan ez ezik, telebista tradizional eta interneteko webguneetan kontsumo tarte laburrak nagusitzen dira koronabirusarekin zerikusia daukaten edukietan, ikasleen % 44 eta % 45,5 ordu bete baino gutxiagoko aukeretan kokatzen baita, hurrenez hurren. Telebista tradizionalaren kasuan, % 24,5ek egunean 1 eta 2 ordu arteko kontsumoak egiten du eta beste % 23,3k ez du euskarri honen kontsumorik egiten. Interneti dagokionez, eta esan bezala, ia ikasleen erdiak ordu beteko baino gutxiagoko kontsumoa egiten badu ere, % 26,2k ez du batere erabiltzen eta % 15,4k 1 eta 2 ordu bitarteko ikustaldiak egiten du webguneetan.


4. Irudia – Gai honi dagokionez, zure ustez zein dira informazio-iturri fidagarrienak?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko Apirila

Informazio-iturri fidagarrien inguruan galdetu den unean, telebista tradizionala izan da era nabarmenean erantzun gehien bildu duen aukera, % 70,5arekin. Segidan, egunkarietako webguneak ditugu, emaitzen % 49,6. Interneteko webgune orokorre eta irratiak antzeko emaitzak eskuratu dituzte ikasleek informazio-iturri fidagarritzat jo dituzten horien artean, bi aukerak % 30aren inguruan kokatzen dira, irratiak erantzun gutxiago jaso badu ere. Beste aukerekin alderatuz, sare sozialak fidagarritasun gutxiagoko informazio-iturriak dira, baina hala ere, emaitzen % 18,9 biltzen du. Appak eta nahieran zerbitzuak oso babes txikia izan du galdera honetan.

5. Irudia – Koronabirusaren gaineko informazioa aurkitzeko telebista erabiltzen baduzu, zein kanal dira zuretzako fidagarrienak eta informazio egokiena ematen dutenak?




Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko Apirila

Telebista erabiltzen duten ikasleen artean, koronabirusaren gaineko informazio fidagarriena eta egokiena ematen duen kanala ETB2 da, erantzunen % 42,6

bereganatuz. Jarraian, TVE1 (% 27,4) eta ETB1 (% 24) ageri dira, hurrenez hurren. Euskarazko kanalak ETB2k jasotako erantzunen erdia baino zerbait gehiago bildu du eta horrek agerian uzten du pandemiaren gaineko informazioa bilatzeko orduan gaztelaniazko kanala lehenesten dutela.

ETB1en emaitza antzekoekin La Sexta kanala dugu (% 23,5), eta segidan Antena 3 (% 16,5) eta Telecinco (% 11,6). Azken bi hauen emaitzak apalagoak dira, baina ohikoa da bi kanal hauen albistegiaren audientzia murriztagoa izatea Euskal Herrian. Cuatro kanalarekin batera, tokiko telebistek arrakasta gutxi dute birusaz informatzeko unean. Hala ere, esan behrra dago, ikasleen % 20,7 ez da telebistaz baliatuko koronabirusari buruzko informazioa bilatzeko orduan.

6. Irudia – Berrien fidagarritasunaz zalantzak badituzu (buloak, albiste faltsuak edo fake newsak direlakoan) zer egiten duzu?




Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko Apirila

Informazioaren fidagarritasunaren inguruan kezka eta egiazkotasuna zalantzan jartzen dutenean, ikasleek Googlea jotzen dute kontraste lana egiteko asmoz, panelkideen % 62,2k hala egiten du. Gutxiago dira telebista informazio-iturri gisa erabiltzen dutenak edota guraso, familia eta lagunek osatzen duten kapital sozialari zuzendutako galderen bidez aritzen direnak. Telebista eta guraso ala familiakoei egindako galderak pareko mailan kokatzen dira, erantzunen % 39,4 eta % 38,4 bilduz, hurrenez hurren. Lagunei galdetzearen alternatibak aurreko zereginek baino emaitza xumeagoan baditu ere (% 24,6), sare sozialen arakate eta irratia entzuteari nagusitzen zaizkio. Berrien fidagarritasuna konprobatze aldera, irratiko entzunaldiek ez dute arrakasta handiegirik, erantzunen % 6,6 soilik metatzen baitu. Sare sozialak, Googleko bilaketetaz urrun kokatzen badira ere, erantzunen % 21,3 osatzen du.

Aitzitik, informazioaren egiazkotasunaz kezka direnean, ikasleen % 9,6k ez du konprobaziorik egiten, eta gainera, horien artean % 3,6k zalantzak diren informazio hauek lagunei birbidaltzen dizkie. Azkenik, beste era bateko konprobazioak egiten dituzten ikasleak % 10,2 da.

7. Irudia - Koronabirusarekin zerikusia dauzkaten notiziak, bideoak, artikulua, txisteak, youtuberren emanaldiak, telebistako programak, sare sozialetako mezuak, irudiak... ikusten zenbat denbora ematen duzu egunean?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko Apirila

Koronabirusari buruzko edukien hizkuntzari dagokionez, gaztelania nagusi da. Ikasleen % 39,3k dio gaiaren inguruan ikusten dituen edukiak beti direla gaztelaniaz eta % 51,4k berriz, askotan. Honela, ikasleen % 90,7k koronabirusarekin zerikusia duten edukiak kontsumitzen duenean, gaztelarara jotzen du. Ikasleen % 7,2k soilik dio era honetako edukiak batzuetan ikusten duela, eta oso gutxitan eta inoiz ez aukerek, erantzun oso gutxi pilatu dituzte, % 2,2 bilduz.


Ingelesezko edukiei dagokienez, % 35,5k aitortu du ez duela hizkuntza honetan halakorik ikusten, eta % 33,7k berriz, oso gutxitan. Koronabirusaren inguruko edukien kontsumoan, ikasleen % 69,2k ingelesez inoiz ez edo oso gutxitan egiten duela dio. Gainontzekoen artean, % 21k batzuetan egiten du hizkuntza honetan, eta % 9,4k askotan. Edukiak beti ingelesez kontsumitzen dutenak ez dute apenas garrantzirik, soilik ikasleen % 0,3 baita.

Bestetik, ikasleen % 40,3k oso gutxitan egiten du era honetako kontsumoa euskaraz, eta % 36,9k inoiz ez. Bi aukera hauek ikasleen % 77,2 osatzen du. % 18,8k dio batzuetan euskarazko iturriak erabiltzen duela eta askotan eta beti aukeretan kokatu direnak gutxiengo nabarmen da, ikasleen % 4.

Azkenik, ikasleen gehiengo nabarmen batek era honetako kontsumoa ez du inoiz ez frantsesez egiten.

4. Entreenimenduzko edukien inguruko ohitura aldaketak

8. Irudia – Berrogeialdian sartu ginenetik, zenbat denbora ematen duzu egunean fikziozkoak edo entretenitzeko asmoarekin eguniko edukiak ikusten?



Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko Apirila

Konfinamendu egoeran aurkitzen direnetik gazte hauek daukaten fikzio eta entretenimenduzko edukien eguneko kontsumoa neurtzen du 8. irudiak. Lehenik eta behin, aipagarria da ikasleen % 68k berrogeialdia hasi zenetik ez duela dokumentalik ikusi. % 60,1k adierazten du ez duela tutorialik aukeratu egun hauetan. Tele sailak dira gehien kontsumitzen diren edukiak eta % 11,1 soil batek dio ez duela halakorik kontsumitu, gainontzekoek bai noski.


Serieak kontuan hartuz, ikusten da UPV/EHUko ikasleen % 32,3k egunean 1 eta 2 ordu artean eskaintzen diela egunero, % 24,7k ostera, 2 eta 3 ordu artean. Bi denbora tarte hauetan kokatzen diren inkestaturen % 57 da guztira.

Fikziozko generoan kokatzen diren pelikulek berriz, kontsumo urriagoa dute, % 23,5ak esaten du ez duela halakorik kontsumitzen. Hala ere, pelikulak ikusten dituzten ikasle gehienak ordubate eta hiru orduko kontsumo tarteetan kokatzen direla esan daiteke, bi tarte ezberdin hauek ikasleen % 51,9 pilatzen baita.

Bideo barregarriak kontsumitzerako orduan, ikasleen % 40,2k denbora tarte laburrean egiten du, ordu bete baino gutxiagoko aukeran kokatzen da eta % 21,1 bat eta bi ordu artean. Hala ere, aipatzekoa da era honetako edukiak kontsumitzen ez duen ikasleen % 28 dela.

Jarraian ditugun edukietan, ikasleen gehiengo batek hauen kontsumorik egiten ez duela dio. Honela, % 36,8k ez du bideo musikalik kontsumitzen berrogeialdian dagoenetiko bere egunerokoa, % 43,3k ez du telebista programen zatirik ikusten, % 44k ez du elkarrizketak ikusten eta aurrez aipatu bezala, ikasleen gehiengo batek ez du tutorial eta dokumentalen ikustaldirik egiten. Azken eduki hauek egunerokotasunean kontsumitzen duten ikasle horiek tarte laburretan kokatzen dira, batez ere ordubate baino gutxiagoko eta 1-2 ordu arteko kontsumoan.

9. Irudia – Berrogeialdian zaudenetik, egunean zehar zenbat denbora pasatzen duzu zuzenean lagunekin txateatzen, telefonoz hitz egiten, sare sozialen bidez komunikatzen, bideoak trukatzeko?




Iturria: Ikusiker Panela, 2020ko Apirila

Ezohiko testuinguru honek ikasleen komunikazio ohiturak moldatu ote dituen jakiteko asmoz, lagunekin telefono edo online bidezko IKT baliabideen erabilera denboran neurtu nahi izan da. Gazteen % 27,4, 2-3 orduko tartea hartzen duen aukeran kokatu da. 1-2 ordu artean kokatu direnak berriz % 24,6 da. Hau ikusita, ikasleen erdia baino gehiagok (% 52), egunean zehar ordu bat eta hiru ordu arteko bideokonferentziak edo online bidezko komunikazioa egiten duela aitortzen du. Ikasleen erdia baino gehiago tarte horretan kokatzen bada ere, % 40,1k egunean hiru ordu baino gehiago ematen ditu lagunekin hitz egiten. Horien artean, % 27,7k hiru ordutik bost ordura bitarteko tarte ematen du, % 12,4k bost ordu edo gehiagoko denbora eskaintzen dio. Bost ordutik aurrera kokatzen diren ikasle hauen artean, % 4,8k 7 ordu baino gehiago ematen du lagunekin komunikatzen.

Denbora tarte zehatzak kontuan hartuz, 3-4 ordu artean kokatutakoak panelkideen % 16,8 da, eta 4-5 orduko tarte eskaintzen dioten ikasleak % 10,9 da. Gainera, ordubetetik bost ordu bitartean kokatzen diren aukera ezberdinek, ordubete edo gutxiago aukeran kokatzen diren gazteek baino erantzun gehiago pilatzen dituzte (% 7,9).

10. Irudia – Banaka ala taldean eginiko bideo-deiak erabiltzen badituzu, zein dira egokienak iruditzen zaizkizun programak?



Bideo-deiak egiteko programak

Iturria: IKUSIKER Panela, ZUZUKO APIRIA

UPV/EHUko gazteek bideo-deiak egiterakoan erabiliena duten programa Skype da, inkestatuen % 64,7k programa egokien artean kokatu baitu. Jarraian Whatsapp aplikazioa kokatzen da, erantzunen % 56,1 eskuratuz. House partyk eta Instagramek emaitza apalagoak lortu dituzte, hurrenez hurren erantzunen % 32,5 eta % 31,9. Hangouts eta Zoom programek ere erantzun maila parekoa daukate, baina gainontzekoekin alderatzen baditugu, azken bi hauen erabilera ikasleen artean urria da, aukera bakoitzak erantzunen % 7,4 bildu baitu soilik. Jitsi meet eta Facebookek arrakasta oso gutxi izan dute bideo-deiei dagokionean, baina aipatzekoa da bestelako aukeren artean, Discord plataforma ageri dela. Izatez online bidezko bideo-jolasentzat pentsaturiko aplikazioa bada ere, bideo-deietarako baldintza egokiak eskaintzen dituela diote ikasle batek baino gehiagok. Bestelako aukeren artean, Discordek erantzunen % 15etik gora pilatu ditu, eta maiztasun gutxiagorekin bada ere, errepikatutako beste pogrametako bat FaceTime da. Azkenik, agerian geratzen da ikasle gehienek azken egunotan bideo-deiak egiteko aplikazioak erabili dituela, soilik % 3,5k baito ez duela horrelakoen erabilerarik egiten.

5. Berrogeialdiak markatzen dituen joerak

Goiz da informazio eta komunikazio teknologien erabileretan eta ikus-entzunezko kontsumoetan gazteek erakusten dituzten portaerak finkatu eta betikotuko ote diren jakiteko. Edozelan ere, berrogeialdia hasi zenetik antzematen dira elementu azpimarragarri batzuk bai kontsumo hauen motan, zabaleran eta baita iraupenean ere, Ikusiker Panela osatzen duten gazteek (700enetik gora) adierazi dute koronabirusaren eraginez etxean daudenetik gehiago erabiltzen dituztela informazio eta komunikazioen teknologiak, informatzeko, entretenitzeko eta haien lagunekin komunikatzeko. Panelkideetatik %54,2k dio askoz gehiago erabiltzen duela eta beste % 37 apur bat gehiago.

Zenbat orduko kontsumoak adierazten dituzten aztertzerakoan ere ageri dira datu interesgarriak: sare sozialetara 2-4 ordu artean konektatuta dagoen gazte kopurua % 48,3 da. Eta 4-6 bitartean, beste % 23.

Ordainpeko plataformek ere okupaten dute UPV/EHUko ikasleen denbora. 49,3k bi eta

lau ordu artean kontsumitzen ditu egunero eta beste 9,6k 4-6 ordu artean.

Telebista tradizionalaren erakarpena, ordu kopuruari dagokionez behintzat, ez da hain altua: % 11,7 bi eta lau ordu artean egunero.

Hori bai, koronabirusari buruzko informazioa bilatzerakoan, telebista ageri da erreferente nagusi modura (egunero bi ordu artean ikusten dutenen kopurua % 68,5 da). Sare sozialak ere informabide aipagarriak dira eta % 67,7ko arreta bereganatzen dute egunero bi ordu artean. Internetek ikasleen % 60,9a eskuraten du.

Gainera, telebistak fidagarritasun maila altua du informazio-iturri modura (% 70,5) eta bereziki EITBko kanalen kasuan eta beti ere konfidantza gehiago jarritz kanal publikoetan.

Informazioaz harago, entretenimendu bila jotzen dutenean, panelkideek fikziozko sailak eta pelikulak aukeratzen dituzte. Eta aurkitu eta denbora dexente eskaintzen diete datuek erakusten duten bezala. Berrogeialdiak markaturiko egunerokoan, % 57k hiru ordu artekoa dedikatzen die seriei eta beste % 51,9k pelikulak ikusteari.

Informazio eta komunikazio teknologien erabilerak, nola ez, gazte hauen arteko harremanak sortzeko eta mantentzeko izaten dira. Ikusiker Panela osatzen duten unibertsitariei galdetu zaienean ea asko erabiltzen ote dituzten bideo-deiak, erantzunak hauek dira: % 24,6k bat eta bi ordu artean egunero baina gehienak hortik gora kokatzen dira (2-3 ordu artean % 27,4; 3-4 ordu % 16,8 eta 4-5 ordu artean egunero % 10,9). Lagun eta sendikoen artean komunikatzea ohikoa da panelkideentzat eta horretarako gehienetan Skype eta Whatsap erabiltzen dute.

Ikus-entzunezko kontsumoak eta orohar IKTen erabilerak oso barneraturik daude gazte hauen egunerokoan eta dirudienez berrogeialdiak joera horiek areagotu baino ez ditu egin.